

URUE, Ermuko Irratizaleen elkartea

- Zein urtetan sortu zen taldea?

1991. urtean sortu zen, urtarrila edo otsailean.

- Zenbat kide zarete?

Gaur egun 9 kide gara. Beherakada handia egon da irrati-zaleei dagokienez, bai Ermuan eta bai mundu osoan ere. Sortu zenean 'boom' antzerako bat izan zen, eta orain benetan gustoko dugunok bakarrik geratu gara.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Ba irrati zaletasuna ez galtzea. Metalezko kaxa batekin eta hagar txo batekin munduko edozein lekutan dagoenarekin berba egiteko dagoen aukera ez galtzea. Orain, Internetek ere kalte handia egin digu, ordenagailua piztu eta munduko beste edozeinekin hitzegiteko aukera dagoelako.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete?

Normalean asten behin edo hamabostean behin. Gero, ekitaldiren bat antolatu behar badugu, behar den guztietan biltzen gara.

- Urtean zein ekitaldi egiten dituzue?

Santixauetan 'ehizaldia' antolatzen dugu umeentzat. Lehen nagusientzat ere egiten genuen eta kanpoko jende piloa etortzen zen, baina antolatzeak gure aurrekontuetako %80 irensten zuen eta ez zuen zentzu handirik. Gero, Gaztela Mantxa, Gaztela



eta Leon eta Urko mendiko txirrindulariekin kolaboratzen dugu urtero.

- Txangoak egiten dituzue?

Bai, azkenego urteetan Nafarroa eta Asturiasera joan gara probak egitera. Ermua, oso polita da baina irrati zaleontzat ez da lekurik onena, mendi asko dago, zulo

antzerako batean gaude.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Ba, hilabete batzuk barru lokala izango dugu futbol zelai zaharra zegoen zeuden lekuan, baina momentuz ez dugu. Bestela, 615760606 telefonora dei dezake interesa duenak.

Dorleta Vidal

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

Izelaiaeta, 40
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63
Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ

Garraioak, S.L.

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna